



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2023KO OTSAILAREN 27AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2023ko Otsailaren 27an, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Santos Etxegia, Xabier Azpiroz, Julen Beunza eta Ricardo Arangoa

BERTARATU EZ DIRENAK: Olatz Dorai eta M^a Mar Ansorena

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Urtarrilaren 31eko ohiko batzarreko akta eta otsailaren 23ko ezohikoak emailaz helarazi zaizkie zinegotziei eta aho batez onartzen dituzte bildutakoek.

2.- Alkate ebazpenak

-2023/10 alkate ebazpena: Baimena ematea Irati Miren Munduate Apariciori, Apeztegi berriko ganbara erabiltzeko asteartetan 19:00etatik 20:30etara pilates-tono eta astearte eta ostegunetan 17:30etatik 19:00etara Flt Dance ikastaroak emateko.

-2023/11 alkate ebazpena; Onartzea Gregorio Loidi Goñik aurkeztutako aitorpen arduratsua, Udabeko 1. Poligonoko 28. Lursailean dagoen etxeko teilatuan eguzki plakak jartzeko 4.371,90 euroko aurrekontuarekin.

-2023/12 alkate ebazpena: Onartzea Alicia Esther Legarra Iriartek aurkeztutako aitorten arduratsua, Gartzarongo Asuncion 6 kaleko 1 B etxebizitzarentzat egurrezko galdara jartzeko 16.890 euroko aurrekontuarekin.

- 2023/13 alkate ebazpena obra baimena ematea Xabier Salvador Lacunzari Berueteko 11. Poligonoko 28. Lursailean dagoen etxea eraberritzeko 183.994,10 euroko aurrekontuarekin-

- 2023/14 alkate ebazpena Baimena ematea Igor Arroyo Leatxeri otsailaren 3an, arratsaldeko 18etatik 19:30etara Aizarotzko Kultur Etxeko areto nagusia erabiltzeko, eguzki eta ilargi egutegiaren inguruan solasaldi bat egiteko

- 2023/15 alkate ebazpena: Julen Beunza Arano eskuordetzea 2023ko Maiatzaren 20an ospatuko den 2022/3 zenbakidun ezkontza zibila egiteko ahalmena izan dezan; eskuordetzeak ebazpena sinatzen denetik izanen du indarra.

-2023/16 alkate ebazpena .Baimena ematea Aralar Musika Eskolari, Apeztegiberriko ganbaran dagoen areto nagusia erabiltzeko, Martxoaren 13an arratsaldeko 14:30etatik aurrera musika emanaldia egiteko.

- 2023/17 alkate ebazpena Onartzea Florencio Oscoz Nuinek aurkeztutako aitorten arduratsua, Udabeko 1. Poligonoko 22. Lursailean dagoen eraikinaren teilatuan eguzki plakak jartzeko, polígono bereko 18. Lursailean dagoen etxebitza hornitzeko 14.128 euroko aurrekontuarekin.

Bildutakoek ontzat ematen dituzte onartutako alkate ebazpenak.

3.- 2022ko aurrekontuaren luzapena.

2023ko aurrekontua onartu gabe dagoenez eta kontabilitatea eguneratu behar denez, 2023ko aurrekontuaren luzapena onartu behar da...

Luzapen honetan ez dira sartzen inbertsioko gastuak ez inbertsioko sarrerak, bakarrik gastu eta sarrera arruntak. 2022ko aurrekontuaren luzapenaren behin behineko aurreikuspenak.846.144 eurokoak dira 1.154.00 euro inguruko sarrerekin..

Hortaz eta 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazio Foru Legearen 270. artikulua jarraituz bildutakoek onartzen dute 2022ko aurrekontuaren luzapena behin behineko aurreikuspenak.846.144 eurokoak izanik.

4.- 2022/3 aurrekontu aldaketa. Behin betiko onespena

Hasiera batez onartu zen aurrekontu aldaketa hau 2022ko abenduko batzarrean, ondoren eta 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazio Foru Legearen 276. artikulua jarraituz behin betikoz onartu ahal da 2023ko urtarrilaren 24ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta 15 eguneko epea pasata alegazioak aurkeztu ez direlako.

Aurrekontu aldaketa hau Orveko partidaren gastua aurrekontuan txertatzeko onartu zen.

2022/3 aurrekontu aldaketa.1.1.2 poltsan dagoen Orveko ekarpenaren partidaren aurreikuspenak egokitzeko da. Aurreikuspena 8436 eurokoa zen aurrekontua onartu zenerako jakinarazi zutelako zenbateko ekarpena zegokion udalari baina duela aste batzuk adierazi zuten kalkuloak gaizki egnak zeudela eta hortaz osotara 16883,91 euro dira ordaindu direnak.

Igoera hau aurrekontua igo gabe, kreditu transferentzi bidezko aurrekontu aldaketarekin finantzatuko litzake, 1.1.5 poltsan dagoen soberakinarekin. Poltsa honetan dagoen partida industriaguneko urbanizazioarena da eta guztiz ez da gastatutako aurreikusitakoa.

Hortaz bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute aho batez:

Behin betikoz onartzea 2022/3 aurrekontu aldaketa 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazio Foru Legearen 276. artikulua jarraituz eta modu xehetuan argitaratua izan dadin agindu.

5.- Geserlocal entitate instrumentala izendatzeko adierazpena.

Egun egiten dituen lanak egiten jarraitzeko eta BEZ-aren salbuespenaren onuradun izateko, entitate instrumentala izandatu behar da eta erabaki hau jakinarazi bai NUKFri eta bai Geserlocali.

Egitasmo honen azalpena honakoa da:

Geserlocal S.L. NUKFk eta Zangozako, Erriberriko eta Lizarrako udalek sortutako merkataritza-sozietatea da, Nafarroako toki entitateei nahitaezko diru-bilketaren alorrean zerbitzua emateko. Egun, Geserlocalek bere helburu sozialaren barruan dauden bestelako zerbitzu osagarriak ematen dizkie toki entitate horiei.

NUKFK Sozietatearen kapitalaren %97 du eta gainontzekoa aipatu udalei dagokie.

Orain arte, Geserlocalek beste zerbitzu batzuk eman dizkie Nafarroako toki entitateei kontratazio araudiaren arabera esleitze akordioen bidez.

Kontuan hartuta kontratazioari buruz indarrean dagoen araudia eta botere esleitzaileri eta erakunde instrumentalei buruz dauden aurreikuspenak, bereziki Kontratazio Publikoari buruzko 24/2014 Zuzentaraua eta apirilaren 13ko Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legea, Sozietate honi erakunde instrumentalaren izaera esleitzea posible da ez soilik haren kapitalean parte-hartzea duten udaletan baizik eta NUKFren kide diren toki entitateetan ere, Federazioa sozietatearen titular nagusia delako. Horrenbestez, erakunde instrumentala izateko baldintzak bete egiten dira:

- 1.- Sozietatearen kapital guztia publikoa da.
- 2.- NUKFK eta horri atxikitako toki entitateek, federazioaren bitartez, batera egiten dute Sozietatearen gaineko kontrola.
- 3.- Geserlocalek bere jardueraren funtsezko zati bat bitarteko propio gisa esleitu duten toki entitateentzat egiten du.

Hala jakinarazi du Nafarroako Kontratazio Publikoko Batzordeak 1/2021 txostenean.

Aurrekoa kontuan harturik, NUKFren Batzorde Betearazleak irailaren 14an egindako saioan erabaki zuen Geserlocal Federazioari atxikitako toki entitateen erakunde instrumental bihurtzea hala erabakitzen duten toki entitateetan.

Horrenbestez, Nafarroako Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 8.2.d) artikuluan xedatutakoari jarraiki,

Hortaz batzarrera bertaratutakoek aho batez onartzen dute ondoren transkribatzen den erabakia:

Geserlocal S.L Basaburuko Udaleko, erakunde instrumental deklaratzeko aipaturiko Foru Legearen 8. artikulua xedatutakoaren ondorioetarako.

Adieraztea enkarguek nahitaezko diru-bilketari, isunen kudeaketari, kontabilitateari eta sozietatearen xedearekin bat datozen beste batzuei dagozkien prestazioak har ditzaketela barnean.

Honako erabakia NUKFri eta Geserlocali jakinaraztea eta Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.

6.- Aizarozko kultur etxeari izena emateko proposamena. Basaburuko Basandereok elkarteak.

Alkateak irakurtzen du Basaburuko Basandereok emakume elkarteak egindako eskaera, bertan adierazten dute Basaburuko kultur etxeari izena emateko, Lucia Goñi Olias izena jartzea.

Azaltzen dute eskaeran nola Lucia Goñi Aizarotzen jaiotakoa, sukaldari eta bertsolaria izan zen, plazetan ibilitakoa ere eta sorkuntza emankorra egin zuena. Baina jaiotako garaiak kontutan hartuz ez zitzaion merezimenduen aitortza egin. Orain Lucia Goñi Olias izena jartzearekin Basaburuko kultur etxeari omenaldi antzeko bat egin nahi zaio eta eraikinean plaka bat jarri ere.

Bildutakoek ontzat ematen dute Basaburuko Basandereok elkarteak egindako proposamena eta hortaz aho batez hartzen duten erabakia da Aizarotzen dagoen Basaburuko Kultur Etxeari Lucia Goñi Olias izena jarri, haren omenez, hau gogoraraziko duen oroigarri plaka bat jarritz.

Erabaki hau Basaburuko Basandereok elkarteari jakinaraztea ere adosten dute bildutakoek.

8.-Mozioa.

Alkateak irakurtzen du martxoaren 8an ospatzen den Emakumearen Nazioarteko egunearen ingurukoa, ondoren transkribatzen dena.

“Zaintzen krisi batean murgilduta gaudela dioten ahotsak aspalditik datoz, eta toki ezberdinetatik. Esan dugu behin baina gehiagotan, pandemiak agerian utzi duela feminismoa aspaldi aldarrikatzen ari zena: bizitza zaugarria eta dependientea da. Bizitzari baldintza duin eta justuetan eusteko apustua egiteko unea da: horrek begirada feminista eskatzen du erakundeetatik bultzatzen ditugun politika guztietan. Krisiaren azaleratzeak batzuegan eragiten duen paralsiaren aldean, mugimendu feministaren deiarekin bat egiten dugu. Diskurtso hutsaletatik, elkarlanerako eta sistema publikoaren defentsarako bideak ezarri eta eraikitzeke garaia da.

Herritar guztion bizitzek ez dutelako berdin balio gure herrian. Eta bizitza horien zaintza ez da modu berean egiten. Gogor salatzen ditugu zaintzarekin negozioa egin eta eskubidea merkantzia bilakatzen duten politikak eta enpresa kapitalistak. Zaintzaren merkantilizazio eta familiarizazioa da sustatzen den eredu, eta honek etxeko eta zaintza sektoreko langileen esplotazioa dakar. Sektorea desarautua batzuen kasuan, eta konbenio ezberdinetakoa besteen artean.

Egoitzetako zein etxez etxeko langileak, gehienak emakumeak, lan baldintza duinen aldeko borrokari heldu behar izan diote etengabe haien egoera hobetzen saiatzeko, ez baita etorri instituzioen partetik, pandemia ostean ere ez, berau erregulatzeko eta duintzeko inolako urratsik. Feminizatutako eta prekarizatutako sektore honek, zaintzen krisiaren erresoluzio sexistaren beste albo kaltea dira, askoren ahotan dagoen soldata arrakalaren eragile nagusietakoa.

Krisi egoera honi egoki erantzungo dioten erantzun integralak premiazoak dira, esparru eta maila guztietan, eta ezinbestekoa da, eremu hau ere horretara aktibatu eta soluzio berriak mahai-gaineratzen hastea. Errealitate gordin horren aurrean, gure herriak, dinamika eraldatzaile eta partekatu bat abiatu behar du, erakundeetatik ahalegin eta konpromiso hori aitortuz, proposamenak eta aldarrikapenak jasoz, eta topaketa- eta elkarrizketa-guneak bultzatu eta indartuz.

Horregatik guztiagatik, Basaburuko Udaleko bildutako ordezkari guztiek aho batez honako hau erabaki dute:

- Euskal Herriko Mugimendu Feministak abiatu duen dinamikarekin bat egitea, hasteko eta behin, Martxoaren 8ko deialdiak babestuz eta herritarrei bertaratzeko deia eginez. Hortik aurrera landuko den prozesuan eragile aktibo bezala parte hartzeko eta ardurak hartzeko konpromisoa adierazten dugu.

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

Gai ordenetik kanpo alkateak dio badaudela beste bi gai aztertzeke, hirigintza batzordean aztertu direnak eta premiaz batzarrean erabaki behar direnak, alde batetik Igoako UA 2 unitateko urbanizazio proiektuaren aldaketaren tramitazioari hasiera ematea eta bestetik Arrarasko Lardi etxearen aurri expedientea irekitzea.

Igoako UA 2 unitatearen urbanizazio proiektuaren aldaketa. Hasierako onespena.

Alkateak aipatu bezala hirigintza batzordean aztertu da gai hau hanbat aldiz aldatu dutelako proiektua eta azken proposamen honetan argi indar linea lurperatzen dute hasieran proposatzen zuten bezala baina lerroaren linea tokiz aldatzen da, urbanizazioko 3 eta 4. lursaileen mugatik pasatuko da zuzenago joan ahal izateko azpiegitura. Udal arkitektoak baiezko txostena egin du 23/0060 . txostena da, eta bertan ondorioztatzen du ez dagoela oztoporik urbanizazio proiektuaren aldaketa tramitzeko beti ere UA-2 unitateko sustatzaileen ordezkariaren egiaztapena edo jabe guztiek eskaera sinatua aurkeztuz. Dokumentu hau behin betiko onspena eman baino lehen aurkeztu beharko dute, aurkeztu ezean ezingo da behin betikoz onartu proiektuaren aldaketa hau.

Lurralde Antolamendu eta Hirigintzako 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 134.5 artikulua araberak, erabaki honek hasierako onspena jaso behar du batzarrean eta ondoren Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izango da 20 egun baliodunen epean. Ondoren, alegazioak ez badira aurkeztu behin behineko onspena eman ahal zaio.

Hortaz bildutakoek ikusita udal arkitektoaren baiezko txostena eta 2017/ Foru Dekretu Legegileak arautzen duena, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute aho batez:

-Hasierako onspena ematea Igoako UA 2 unitatearen urbanizazio proiektuaren aldaketari eta erabaki hau Lurralde Antolamendu eta Hirigintzako 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 134.5 artikulua araberak Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agindu 20 eguneko epean jendeaurrean egon dadin expedientea alegazioak jartzeko aukera irekiz.

-Erabaki hau unitateko sustatzaileari jakinarazi, adieraziz behin betikoz onartua izan dadin urbanizazioaren aldaketa, UA-2 unitateko sustatzaileen ordezkariaren egiaztapena edo jabe guztiek eskaera sinatua aurkeztu beharko duela

Arrarasko Lardi etxearen erauspen egoeraren aitortza.

Alkateak azaltzen du aurreko gaia bezala hau ere hirigintza batzordean aztertua izan da hainbat aldiz, eraikinaren egoera geroz eta okerragoa da, duela urte luze jada kalea itxi zuen kontzejuak teilatuaren erauspen arriskuagatik. Jabeak botatzeko memoria teknikoa aurkeztu, proiektu teknikoa aurkezteko eskatu zaio baina ez du aurkeztu. Egoera ikusita udal arkitektoak ikuskapen bisita egin du eta bertan ikusi duena 23/0054. txostenean zehazten da.

*“2022/12/14an ikuskapen-bisita egin ondoren, eraikina, eremu publikoaren erabiltzaileei benetako arriskua dakarrena; beraz, beharrezkotzat jotzen du aurri-egoera deklaratzeko expedientea irekitzea eraikinaren hur-hurrekoa
Eraikin babestua denez, expediente horretan entzunaldia emango zaio jabea eta Kultura arloan eskumena duen Sailari jakinaraziko zaio. 199 1/2017 LFL eta 14/2005 FLren 31. artikulua)*

Babes bereziko kategorietan sartutako eraikin bat eraistea. aurri egoeraren deklarazioa eta departamentuaren baimena beharko dira alde zurretik.

Kulturaren arloko eskuduna, eta horrek zehaztuko du balizko eraistea eta berreraikitzea, hala badagokio, balio hauek kontserbatzeko: higiarazleak.»

Hau kontutan izanda bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Arrarasko 14. poligonoko 5. lursailean dagoen Lardi etxeari udal arkitektoaren 23/0054 txostena ikusita aurri espedientea aitortu eta 2017/1 Foru Dekretu Legegilearen 199. artikulua araberan erabaki hau bai jabeari bai Bianako Pintzearen Institutoari jakinarazi. Kultura-arloko eskumenak dituen erakundeak honako hauek izango ditu legitimatuta interesdun gisa parte hartzea. Toki entitateek espedientea ireki dela jakinarazi beharko diote eta bertan hartzen diren ebazpenak. Higiezina eraisteko, alde aurretik aurri egoeraren adierazpenaren irmotasuna eta kultura-arloa, eraispeneren eta berreraikitzea, hala badagokio, babesa eragin zuten balioak kontserbatzeko higiezinarenak.**
- **Erabaki hau aipatutako lursailaren jabeari jakinarazi eta Biana Pintzearen Institutoari.**

8- Batzordeen informazioa.

Eskualdeko Turismoa Kudeatzeko plana. Xabier Azpirozek ematen du informazioa.

Turismoa kudeatzeko planaren onartu eta martxan jarriko da, 2024-2027 urte arteko plana izango da eta bertan eskualde mailan burutuko diren ekintzak daude, amankomunak eskualderako, dinamizazio iharduerak, web orria eta beste... eta ere bestelako iharduerak udal bakoitzean sustatuko direnak... Osotara 5 miloi euroko gastua izango du programak eta laguntzak jasoko dira.

Basaburuaren kasuan, bi proiektu aurrera eramango dira, Ihabengo aisialdi guneko egokitapena, 80.000 euro inguruko aurrekontuarekin eta bestetik Jaunsarasko ariztien gunean umeen parke bat jartzea, 50.000 euro inguruko aurrekontuarekin.

Proiektu hauek %100eko laguntza izango dute burutu ahal izateko.

Kirol Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa:

Pala eta frontenis txapelketan abian dira, martxoan hasita apirilaren bukaera arte.

Maiatzaren 22an Basaburuko BTT martxa burutuko da eta www.kirolprobak.com web orrian izena emateko aukera egongo da.

Kultura Batzordea. Esther Lacastak ematen du informazioa:

Martxoaren 11ean Bankako Menditarrak taldearen kontzertua antolatu da eta ondoren afaria, izena ematen duten kopuruaren arabera Itsasoko elkartean edo beste toki batean egingo da.

Martxoaren 10ean Emakume Langileen Nazioarteko Egunaren barruan afaria egingo da Apeztegiberrin eta bertan udalak antolatutako emanaldi bat burutuko.

9- Informazio orokorra.

Ez dago.

10. Erregu-galderak

Ez dira egin.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 20:10 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.